


60 EGUN BAINO GEHIAGO MEXIKOKO GOLKOAN, URTE NIGERREKO DELTAN

Posted on 24/06/2010 by Naider



Duela 60 egun baino gehiago Deepwater Horizon plataformak eztanda egin zuen Mexikoko Golkoan. Harrezkero, egunez egun, industria-aroko hondamendi ekologiko handienetako bat bihurtu den petrolio isuri izugarria gertatu da. [AEBetako gobernuaren kalkuluen arabera](#), egunean 60.000 upel inguru botatzen ari dira. Hala, gertakariaren datatik (apirilak 20) 3,6 milioi petrolio upel inguru direla kalkulatu daiteke itsasoan amaitu dutena.

Ez da gutxiagorako, ekitaldiaren estaldura eta jarraipena oso bizia izaten ari da. Izan ere, Mexikoko Golkoko sakoneran petrolio isuriaren irudiak zuzenean ikusteko aukera dago:

Hondamendia, inguruko itsas eta kostaldeko ekosistemetan izaten ari den eragin izugarriaz gain, [Obamari eragingo dio](#) eta baliteke BP hondoratzea, eta horrek ez du geldituko [eguneratu informazioa](#) petrolio-isuria geldiarazteko egiten ari diren ekintzei buruz.

Atlantikoaren beste aldean, Nigerreko deltan, petrolio ere isurtzen ari da, baina hamarkadetan. [Aminsty Internationalek 2009ko txostenean](#) dio 9 eta 13 milioi upel artean isuri direla eremu horretan azken 50 urteotan. Shell-ek, Nigerreko deltako petrolio konpainia nagusiak, txosten berean aitortu du 1989 eta 1994 artean urtero 7.350 petrolio upel isuri zirela.

